

TITULO/TITLE: **Título** Ref: CM.2.0031 (SA+pno)
Compositor/Composer: David Azurza
Texto/Text: Joxemari Iturralde
Idioma/Language: Euskera/Basque

Narratzailea:

Batzuetan iruditzen zaigu gertatu diren zenbait gauza errepikatzen ari direla orain berriro ere Orduan badirudi denbora hainbeste... hainbeste luzatu dela non etorkizunarekin ere bat egingo baitu. Denbora gelditu egin dela ematen du... Batek esan dezake orduan mundu majiko eta misteriotsu baten barruan bizi dela. Dena iruditzen zaigu berezia eta ezberdina: eguna, gaua, zeru izartsua. Gaur adibidez..., ikusi al duzue zenbat izar dagoen zeruan? Zerurantz begiratzean badirudi orain dela denbora asko gertatu zena... hemendik berehalaxe gertatuko dela ostera ere... Baina...zer da izar dizdiratsu hori?

Narratzailea.

Mendi artean dagoen etxe bakarti batean neska bat bizi da. Mari Domingi da bere izena. Gau argitsueta berak ere zerurantz begiratzen du. Eta goruntz begiratzean izar dizdiratsu eta miresgarri hori ikusi du eta... liluratuta geratu da. Hitz egin nahi diola ematen du, zerbait misteriotsu gertatzeaz dagoela adieraztearren... Gertatzeaz dagoela edota gertatzen ari dela? Baina ez Mari Domingik bakarrik antzeman du izar misteriotsu hori. Baita mendiz mendi dabilen jendea artaldeak baterik bestera eramanez, artzainak ere ohartu dira zerbait majiko gertatzeaz dagoela. Gertatzeaz dagoela edota gertatzen ari dela?

Artzainak abiatu dira izar nmajikoak seinalatzen dien lekurantz. Eta aldeberean bidean aurkitzen duen edonor ere gonbidatzen dute ibilbidera.

2. ARTZAIN KANTA

Gau gaua izartsuan.
Goiz goizeko freskuran.
Eguneko beroan, abestuz goaz nekeak ahartzuz.
Goazen denok, aurrera.
Goazen denok, bai!
Menditik gatoz, menditik goaz, herriz herri oinez.
Ez gelditu, ez lo hartu, ez etsitu, artzaiok.
Goazen denok, aurrera.
Goazen denok, bai!

3. MARI DOMINGUI

Horra Mari Domingi, begira horri.
Gurekin nahi duela Belena etorri,
Atera beharko duzu gona zahar hori.
Atoz! Atoz!
Zure bila nenbilen ni.
Atoz, goazen, adora dezagun
Belenen jaio da haurtxoeder hori.
Haurtxoeder hori.

4. BADOAZ ARTZAINAK

Goazen denok, goazen denok, goa zen denok au rrera.
Goazen denok, goazen denok, goazen denok bai.
bai.

5. MARI TRISTE

Triste, bakar, triste nago.
Hemen Joan dira Denak joan dira,
Hau pena taetsipena bakarrik geratzea.
Nik ez nu ke nahi betiko horrela egotea.

Gaur ez badahurrengoan agian izango da.
Gaur ez badahurrengoan, hurrengoan, hurrengoan,
Agian Bihar bai.

Narratzailea

Mari Domingi ate ondoan dago eserita orain.
Triste jarraitzen du baina hala ere ez dio uzten zerurantz begiratzeari, argi misteriotsu hori datorren lekurantz so eginez. Izar majikoa dagoen tokira begiratzen du.

6. FATA MORGANA

Narratzailea

Baina bat batean zerbait ari da gertatzen.
Zer gertatu da?
Zer da hori?
Zer ari da hemen suertatzen?
Ui! eta zu... nor zara?

Fata Morgana naiz
Torizu nire babeza
erabili ezazu ezin baita uka.
Gona zahar hori igurtzihitz majikoak

TITULO/TITLE: **Titulo** Ref: CM.2.0031 (SA+pno)
Compositor/Composer: David Azurza
Texto/Text: Joxemari Iturralde
Idioma/Language: Euskera/Basque

esanda egin gogo biziz.
Hemen zaude
ta gero ez zude konturaru gabe.

Narratzailea
Hauek dira nire hitz majikoak.
Entzun itzazu arretaz..
Altzürrükü darra darra taro sikiro takun.

7. MARI DESAGERTZEN DA. (I)

Ui! Desagertu egin da!
Marik ezin du sinistu. Sinistezina egiten zaio ikusi eta
entzun berri duena. "Ez da posible, ezin liteke",
errepikatzen du behin eta berriz.- Nola joango naiz ba
Beleneraino ni bakarrik hitz batzuk errepikatu ondoren?
Ezinezkoa da. Ezin liteke. Ni bezalako haurrek ezin
baitute hegal egin. Baina, baina... aztia dela esan du
berak.
Izan liteke egia. Berak lortu egin baitu: bat, bi, hiru...
eta
agertu egin da besterik gabe! Eta gero desagertu!
Seguru ez dudala lortuko baina saiatu egingo naiz.
Hitz majikoak esango ditut:

8. KANBON PALANGAK

Narratzailea.
Ui! Nahastu egin naizela uste dut!...nola zen?

9. MARI DESAGERTZEN DA. (II)

Altzürrükü darra darra taro sati ta ta txun.

10. BALIBA SASASA

Balobo kongo mesami io
sasasa kongo mesami io.

11. MARI DESAGERTZEN DA. (III)

Altzürrükü darra darra taro sikiro takun.

12. GLORIA IN EXCELSIS DEO

Gloria in excelsis Deo
Zainduko zaitut oso poliki,
goxo goxo
eta hotzak bazaude nik berotuko.
Gloria in excelsis Deo

13. BADATÓZ ARTZAINAK

Goazen denok, goazen denok
Goazen denok, aurrera
Goazen denok, goazen denok
Goazen denok, bai.

14. AMAIERA

Horra Mari, horra Mari Domingi begira...
Horra Mari, horra Mari Domingi begira horri.